

## GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak Itun Ekonomikoaren legezketasuna defendatuko du UPyD-k iragarritako salaketaren aurrean

*Foru Gobernuak gaur ezagutu du zergen alorrean Nafarroa-Estatua akordioen izaera adostua eta aldaezina gogorarazten duen gobernuaren zerbitzu juridikoak egindako txostena*

Miércoles, 10 de octubre de 2012

Nafarroako Gobernuak Itun Ekonomikoaren legezketasuna defendatuko du UPyD-k iragarritako salaketaren aurrean, eta bere defentsa gaur egin den saioan aztertutako txosten juridikoan oinarrituko du; bertan gogorra ekartzen da Itun Ekonomikoaren eta haren batzorde koordinatzailearen esparruan Foru Komunitateak eta Estatuak hartuko dituzten akordioen izaera adostua eta aldaezina.



Nafarroako jauregiaren fatxada.

Iragan maiatzean lortutako azken akordioaren gainean (BEZaren doikuntza-sistema aldatzen zuena) UPyD alderdi politikoak egindako salaketaren ondorioz eskatutako txostena, irmoa da Itun Ekonomikoa Nafarroaren zati dela defendatzeko orduan, "Konstituzioak bermatutako foru-erregimenari atxikitako ezaugarri funtsezkoa da", eta "alde bateko arau adostu eta aldaezina".

Alde horretatik, txosten juridikoak gogora ekartzen du Itun Ekonomikoa "Nafarroa eta Estatuak zerga-sistemen arteko antolaketa-araua dela", eta "Estatuak karga orokorreari Nafarroak egindako ekarpenak finkatzen dituena eta Nafarroa nahiz Estatuaren eskumenak mugatzen dituena". "Itun Ekonomikoa Nafarroak Espainiako herri guztiekiko duen elkartasuna adierazten da", gaineratzen da.

Gogoratuko denez, iragan maiatzaren 7an Nafarroa eta Estatuaren arteko Itun Ekonomikoaren batzorde koordinatzaileko ordezkariak metodoaren aldaketa bat sinatu zuten 2010-2014 bost urtean Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) diru-bilketaren doikuntza eraginkorra egiteko, Itun horren esparruan. Aldaketa hori egiten zen Nafarroako Volkswagen enpresak esportatzen dituen ibilgailuak merkaturatzeko sistema berriaren ondorioa orekatzeko; izan ere, 1994tik lan egiten zuen era aldatu du Taldeko gainerako guztiek zuten lan-erari egokitzeko. Aldaketak hitzartzen zuen bi administrazioek, Nafarroakoak eta

Estatukoak, bere gain hartzen duten ondorio fiskala malgutzea.

### **Demandatutako alderdia**

Orain arte, Nafarroako Gobernuaren Aholkularitza Juridikoak errekurtsua ezarri izanaren ezagupen ofizialik ez du, ez baita jakinarazpenik edo deirik jaso. Nolanahi ere, txostenak jasotzen duenez, baliteke izatea iragan maiatzaren 7ko Batzorde Koordinatzailearen akordioaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsua, nahiz eta ezin den jakin jartzeko idatziz edo eskea eginez hasi den.

Errekurtsua jarri ondoren, zerbitzu juridikoek azpimarratu dute Nafarroako Foru Komunitateak errekurtsu horretan demandatutako alderditzat hartu behar duela bere burua, jardueran esku-hartzen duen Administrazioa baita, bai eta legezko eskubide edo interesen titularra ere. "Beraz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak espedientearen edo deiaren erreklamazioaren zain egon behar du, une horretan demandatutako alderdi gisa agertuz errekurtsu-jartzailearen nahiei aurka egiteko xedez", dio txostenak.